

KOSTU EGITURA

Gure proiektuaren kostuak 3 multzo nagusitan sailkatu genitzake:

HASIERAKO INBERTSIOA:

- Instalazioen eraikuntza eta txukuntzea (jatetxea, aisialdi guneak, makineria energetikoa, eta bestelako azpiegiturak) -
- Horniketa (sukalde-tresnak, altzariak, kirol ekipamendua, etab.)

KOSTU FINKOAK:

- Itsaso-lurren alokairua
- Mantenimendua (energia sistemena, instalazioena, sukaldeena...)
- Plastikoa bildu eta transformatzea

KOSTU ALDAKORRAK:

- Garraioaren kontratazioa
- Langileen soldata
- Lehengaiak erostea

Gutxi gorabeherako aurrekontu baten ondoren eta horren azterketa intentsiboa egin eta gero, gure hasierako inbertsioa 120.000€koa da; eta kontuan izanda gure diru-sarrerak, entitate finantzieroei eskatutako maileguak eta partaide guztien aportazioak, inbertsio hori 17.650€ gutxienez merketzea lortu beharra dugula ondorioztatu dugu. Kostu aldakor eta finkoei dagokienez, hileroko 40.000€ gastua aurreikusten dugu, baina izango ditugun sarrerak ikusita hori ez da arazorik izango.